



Urretxuko udala



## SANTA LUTZI FERIA 2025 ARAUDI OROKORRA

**1.-Eguna:** 2025eko abenduaren 13

**2.-Lekua:** Hainbat gune prestatuko dituzte antolatzaileek, eta produktuen arabera sailkatuko dituzte postuak. Antolatzaileak beraiek arduratuko dira salmenta postuak jartzeaz, Gernikako Arbola plazan eta Iparragirre kalean. Abenida eta Areizaga-Kalebarreneko postuak erakusleek beraiek ekarri beharko dituzte eta ezinbestekoa da postu estaliak izatea. Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari haren kokapena.

**3.-Ordutegia:** Postuak eta salmentarako produktuak goizeko 9:00etarako jarrita egon beharko dute Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari zein orduan sartu daiteken bere kokapenera. Ezingo dira postuak 15:00ak baino lehenago jaso.

**4.-Izen-ematea:** 2025eko urriaren 6tik 19ra.

### **5.-Izena emateko behar diren agiriak:**

#### -Instantzia ofizial batetan:

- Eskatzailearen datu pertsonalak: izen-abizenak, NAN, helbidea, emaila eta telefonoa.
- Salgai ipinitako produktuaren izena eta tipologia.
- Produktuaren kalitatearen eta jatorriaren bereizgarria (izanez gero).
- Produktuaren osasun-erregistroaren zenbakia (gizakiak kontsumitzeko elikagaiak direnean).
- Nekazaritza ustiapenerako txartela, fruta, apaindura-landare eta barazkien salmentaren kasuan (fruta edo barazki sariketako partehertzaileek, kontu korrontearen zenbakia adierazi)
- Janari-manipulatzzailearen karneta (ontziratuta gabeko elikagaien kasuan).
- Jarduera ekonomikoen zergan alta hartuta egotea.
- Gizarte Segurantzaren araubidean alta hartuta egotea eta kuota ordainduta edukitzea.
- Elikagai ekoizleen kasuan salmentarako beharko dituzten metro kopurua
- Artisauen eta beste produktuen kasuan postu estali propioa duten edo ez eta haren neurriak.
- Eskatzailearen ordezkari autorizatuta egon daitezkeen pertsonen identifikaziorako dokumentazio baliagarria.
- Ibilgailuan salmenta bada: ibilgailuaren zirkulazio baimena, erabiltzailearen gida baimena eta I.A.T.a gaindituta duenaren agiria.

-Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Irakurri ezin diren dokumentuak aurkezten dituzten eskaerak ez dira tramitatuko.



Urretxuko udala



#### **6.-Aukeratzeko irizpideak:**

- Ekoizle-saltzaileen jatorria: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta abarretako ekoizleei emango zaie lehentasuna, hurrenkera horretan bertan.
- Produktuen tipologia: bertako produktu desberdinak erakusteari emango zaio lehentasuna.
- Produktuen egiteko modua: artisau-produktuak lehenetsiko dira produktu komertzialen aldean.
- Ferian parte hartzaile gisa duten antzinasuna: aurreko aldietan feriararen bertaratu direnek izango dute lehentasuna.

Antolatzaileek irizpide horiek kontuan hartuta egingo dute eskabideen arteko aukeraketa, eta ferian parte hartuko dutenei aldeaz aurretik jakinaraziko diete.

#### **7.-Baimena eskuratzeko baldintzak:**

- Dagokion prezio publikoa ordaintzea eskuratutako postuaren komunikazioan adieraziko den epean.
  - **Udalak berak, azpiegitura jartzen dituen postuetan 19,00€ metro lineal edo zatiko egunean**
  - **Bestelako postuak 6,30€ metro karratuko edo zatiko, egunean**
  - **Postuak ibilgailuan 82,30€, egunean**
- Feria egunean, saltzaileak dagokien postuan kokatzeko ardura dutenei baimena erakustea.
- Feriararen eramateko baimendutako produktu hori bakarrik saldu ahal izango du eskatzaileak.

#### **8.-Tasa/prezio publikoa ordaitzearen salbuespenak:**

Aldez aurretik salbuespena eskatzen bada, eskualdeko artisau eta ekoizleen salmenta postuak salbuetsita egongo dira. Udal interesekoa diren talde kultural, kirol edo sozialek salbuetsita egongo dira eta Ikastetxeek, beraien jardueraren finantziatorako jartzen dutenean, salbuetsita egongo dira.